

Prentsa-oharra

IK4-TEKNIKER-ek motor elektrikoak egiteko dituen gaitasunak erakutsiko ditu Go Mobility azokan

- ▶ *Zentro teknologikoak mugikortasun iraunkor eta energia-biltegiatzearen arloetan landutako azken garapen teknologikoak erakutsiko ditu topalekuan*
- ▶ *Mugikortasun iraunkor eta adimenduari buruzko azoka, Europako hegoaldeko profesionalen erreferentziazko topaketa, azaroaren 27an eta 28an ospatuko da, Irungo Ficoba Erakustazokan*

(Eibar, 2018ko azaroaren 26a).- IK4-TEKNIKER zentro teknologikoak [Go Mobility](#) industria azokan parte hartuko du azaroaren 27 eta 28an. Industria eta mugikortasun iraunkorraren arloan lan egiten duten Europako hegoaldeko profesionalen topaketa da ets Irungo Ficoba Erakustazokan ospatuko da haren lehen edizioa.

IK4-TEKNIKER-ek 3. pabilioiko 3-12 espazioan izango du bere standa topaketa honetan eta motor eta generadore elektrikoan diseinu, fabrikazio eta entseguak erakutsiko ditu, baita mugikortasun iraunkor eta adimendua garatzen laguntzeko helburuarekin, neurrira egindako potentziadun ekipo elektronikoak gauzatzeko duen gaitasuna ere.

Sektore industrialen ingurugiro iraunkorraren alde egin duen apustuan, zentro teknologikoak automobilgintzaren sektorea aldatzeko esfortzuan ardaztu du bere espezializazio eta garapen teknologikoa, motor hibrido eta elektrikoak sustatuz. IK4-TEKNIKER, hiru erakusgai aurkeztuko ditu azoka honen lehen edizio honetan.

Motor elektrikoak

Lehengoa imanik gabeko motor elektriko bat da, erreluktantzia kommutatua eta fluxu axiala dituen, eta ibilgailu elektrikoetan txertatzeko diseinatu da. Ekipo hau VENUS proiektuaren esparruan garatu da, imanik gabeko motor-gama berria ekoizteko helburuarekin sortu zen

ekimena, merkaturatzen diren ibilgailu elektriko gehienetan erabiltzen diren motorrak ordezkatzeko.

Bigarren erakusgaia poster baten bidez aurkeztuko da, eta VENUS ekimenaren esparruan garatutako motorraren ondorengo bertsio bat da. Honako hau ere, imanik gabeko motor elektrikoa da, erreluktantzia konmutatua duena, baina zeharkako fluxua dauka, eta erreduktorea errotoreari txertatzen zaio, kostuak murrizteko eta ibilgailuak hartzen duen espazioa gutxitzeko diseinatu da. Erakusgai hau hiriko ibilgailu elektrikoaren kontzeptu berri bat garatzeko helburua duen WEEVIL proiektuaren barruan kokatzen da, hots, ibilgailu elektriko seguruago, trinkoago eta efizienteagoa.

Bi motor berritzaile hauek erakustean IK4-TEKNIKER-ek motor eta generadore elektrikoen diseinu, fabrikazio eta entseguan duen gaitasuna erakutsi nahi du, dagoeneko merkatuan dauden produktuak hobetzeko eta neurrira egindako garapen osoko soluzioen beharrak estaltzeko.

Potentziazko elektronika sektore desberdinetarako

Azkenik, SiC (Silizio Karburoa) erdieroaleak dauzkan alderantzikagailu trifasiko bat erakutsiko du IK4-TEKNIKER-ek. GANICS proiektuaren esparruan garatu da eta inertziazko bolanteetan oinarritutako energia-metaketarako sistema batean txertatu da.

Ohiko teknologiarekin alderatuta, konmutazio-galera txikiagoak dauzkate erdieroale horiek, eta, horrela, konmutazio-maiztasuna areagotzen eta korrante-harmonikoak murrizten dira. Ondorioz, efizientzia hobetzen da, eta sistemaren bolumena eta pisua gutxitzen. Konmutazio potentzia eta frekuentzia oso altuak lortzeko etorkizun handiko alternatiba moduan aurkezten da alderantzikagailu hau.

Garapen teknologiko honekin, zentroak neurrira egindako potentziazko ekipa elektronikoak garatzeko duen gaitasuna erakutsi nahi du. Ildo honetatik IK4-TEKNIKER-ek potentziadun ekipa elektronikoak diseinatzen, garatzen eta egiaztatzen ditu eremu desberdinetan aplikatzeko, hala nola, industria, garraioa edo energia.

Go Mobility

Go Mobility nazioarteko ekimena da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatu du, Eusko Jaurlaritzaren eta Ficobako antolakuntzaren laguntzarekin, fabrikatzaileentzat, industria laguntzailearentzat, hornitzaileentzat eta ikerketa-zentroentzat.

Sektorean egin diren azken berrikuntzak bilduko dituen erakusketa-guneaz gain, hainbat hitzaldi eta mahai-inguru dauden programatuta, halaber, ibilgailuetarako test-eremu bat jarriko da, matchmarking-a egingo da, enpresatara bisitak egingo dira, eta Go Mobility sariak banatuko dira.

Beraz, azoka honen lehen edizio honen helburua eragile desberdinen arteko topalekua izatea da, harremanak sustatzeko, proiektu berritzaileak bultzatu eta lurraldeko industria eraldatzeko.

IK4-TEKNIKERi buruz

IK4-TEKNIKER zentro teknologikoak 35 urtetik gorako esperientzia du teknologia aplikatuaren ikerkuntzan eta hura enpresetara transferitzen, eta, denbora horren ostean, espezializazio-maila altua eskuratu du lau arlo handitan (fabrikazio aurreratuan, gainazalen ingeniarietan, produktu-ingeniarietan eta IKTetan), eta abangoardiako teknologia hori bezeroen premien zerbitzura jartzea ahalbidetzen du horrek.

Informazio gehiago

////////////////////////////////////

IK4-TEKNIKER | Itziar Cenoz

Itziar.cenoz@tekniker.es | Tel. 943 256 929

////////////////////////////////////

GUK | Eider Lazkano

eider@guk.es | Tel. 620 807 344

////////////////////////////////////